V. ESKOLA LEHIAKETA · 2022

# “ANIZTASUNA ABERASTASUN”

V CONCURSO ESCOLAR · 2022

# “DIVERSIDAD FUENTE DE RIQUEZA”



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
AGENDA 2030

Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua

AGENDA 2030



V. ESKOLA LEHIAKETA

# “ANIZTASUNA ABERASTASUN”

V CONCURSO ESCOLAR

# “DIVERSIDAD FUENTE DE RIQUEZA”

**ARGITARATZAILEA | EDITA:**
Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Herritarrekiko Harremanetako Departamentua – Departamento de Relaciones Ciudadanas
Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskuibdeen Zuzendaritza Nagusia - Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos

**KOORDINAZIOA | COORDINACIÓN:** Irati Goikoetxea Asurabarrena (Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzua - Servicio de Convivencia y Derechos Humanos)

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA | DISEÑO Y MAQUETACIÓN**: Horixe Diseño

**INPRIMATEGIA | IMPRENTA**: Ulzama Digital

LG/DL NA 1397-2022

# ANIZTASUNA ABERASTASUN

"Aniztasuna aberastasun modura ikusi, sentitu eta bizi duen gizartea ederragoa da. Ezberdintasuna errespetatu eta ezberdintasuna ikasbide bihurtzen duen gizartea ederragoa da. Begirada koloretsua duen gizartea ederragoa da. Bizikidetza osasuntsua izan nahi duen gizarteak aniztasuna izan behar du oinarri." Ideia horrek ardazten du Nafarroako Gobernuko Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak aniztasunaren inguruan egiten duen eguneroko lana. Aurten, 2022an, "Aniztasuna aberastasun" Eskola Lehiaketa edizio berri batekin itzuli da. Landutako prozesuak eta emaitzek ondo erakusten duten gisan, aurtengoak ere indartu egin du orain arte egindako lana.

## "ANIZTASUNA ABERASTASUN" V. ESKOLA LEHIAKETA

Nafarroako Gobernuak, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren bidez, aurten, 2022. urtean, "Aniztasuna aberastasun" V. Eskola Lehiaketa antolatu du. Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako, eta Lanbide Heziketako ikasleak aniztasunaren inguruko hausnarketa egitera animatzeko eta ezberdina errespetatuko duen gizarte bat eraikitzeko lanetan, begirada inklusibo eta baikorrak lantzeko helburuz sortu zen lehiaketa. Lehiaketak balioan jarri nahi ditu bizikidetza aberasten duen gizarte anitz bateko hiritar izateak eskaintzen dituen aukerak.

Iazko edizio indartuaren ondoren, ikasleak lanketa honetara bultzatuz ikastetxeek egin duten lan ederrari esker, lehiaketak iazko kopuru bertsuei eutsi die aurten ere. Azpimarratzekoa da ikasleek eta irakasleek zein ongi, mimoz eta ilusioz, erantzun dioten lan prozesuari.

Guztira 53 izan dira parte hartu duten zentroak. Lanak ikasgelaka sortu dituzte horietan guztietan irakasle arduradun bat aritu da ikasleekin batera lanean. Zehazki, 1.703 ikaslek parte hartu dute; 91 talde guztira, horietatik 54 Lehen Hezkuntzako taldeak izan dira eta 37 Bigarren Hezkuntzakoak eta Lanbide Heziketakoak. 29 lan euskaraz aurkeztu dituzte eta 62 gaztelaniaz.

Aurten "Aniztasuna aberastasun" gaia zehaztu egin da "Ezagutu nazazu" lemarekin. Lehen Hezkun-

# DIVERSIDAD FUENTE DE RIQUEZA

La sociedad que pone en valor la diversidad, viéndola, sintiéndola y viviéndola como riqueza es más bella. La sociedad que respeta al diferente y que utiliza la diferencia como recurso de aprendizaje es más bella. La sociedad que goza de una mirada multicolor es más bella. La sociedad que quiere convivir relacionándose con los demás de forma saludable necesita ser diversa. La Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos sigue esforzándose día a día en su trabajo en materia de diversidad. Este año 2022, el Concurso Escolar "Diversidad fuente de riqueza" ha regresado con una nueva edición, la quinta, que sigue reforzando aún más el trabajo realizado hasta ahora.

## V CONCURSO ESCOLAR "DIVERSIDAD FUENTE DE RIQUEZA"

El Gobierno de Navarra, a través de la Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos, ha organizado este año 2022 el V Concurso Escolar "Diversidad, fuente de riqueza". El concurso nació con la idea de animar a reflexionar al alumnado de Educación Primaria, Secundaria y Formación Profesional de Navarra sobre la diversidad, y a trabajar una mirada inclusiva y positiva en la construcción de una sociedad que respeta al diferente. Esta iniciativa quiere poner en valor las oportunidades que nos ofrece ser ciudadanos y ciudadanas de una sociedad plural y enriquecer la convivencia.

Tras el importante auge de la edición del año pasado, este año el concurso ha mantenido los números de participación y las buenas sensaciones gracias al gran trabajo que los centros educativos han hecho involucrando en esta iniciativa a su alumnado. Es de mencionar el mimo e ilusión con los que se ha implicado tanto el profesorado como el alumnado en los procesos de realización de los trabajos.

En total han sido 53 los centros participantes. Los trabajos se han desarrollado en grupo bajo la supervisión de profesorado responsable. Concretamente, han sido 1.703 los alumnos y las alumnas que han participado; 91 grupos en total, de los que 54 corresponden a alumnado de Educación

tzako ikasleek aniztasuna gaiari loturiko argazki bat eta laurogei-ehun hitzeko testu bat sortu dituzte. Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikasleak gehienez 60 segundoko iraupena duten bideoen sorkuntza-lanetan aritu dira. Berritasun modura, parte hartzeko aukera Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei luzatu zaie aurten. Marrazki bidez adierazi behar izan dituzte gaiaren inguruko beren hausnarketak. Aurten ere, aurkeztutako lanak anitzak izan dira eta kalitate handikoak. Urtero bezala, testu-mota oso ezberdinak aurkeztu dira: deskribapenak, ipuinak, poemak, bertsoak… Bideoei dagokienez, helarazitako mezuak oso argiak eta zuzenak izan dira.

Talde sarituak ondokoak izan dira:
***Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila euskaraz***:
Argia Ikastola (Fontellas), 1-2.mailak.
***Lehen Hezkuntza 1. eta 2. maila gaztelaniaz:***
CP Atakondoa IP (Irurtzun), 1. maila.
***Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila euskaraz:***
Paz de Ziganda Ikastola (Atarrabia), 3. B.
***Lehen Hezkuntza 3. eta 4. maila gaztelaniaz:***
Colegio Santa Teresa de Jesús (Pamplona / Iruña), 4. A.
***Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila euskaraz:***
Erentzun Ikastola (Viana), 5. maila.
***Lehen Hezkuntza 5. eta 6. maila gaztelaniaz:***
CP Juan Bautista Irurzun IP (Peralta), 5. C.
***DBH 1 eta 2 euskaraz:***
IESO Berriozar DBHI (Berriozar), 2. E.
***DBH 1 eta 2 gaztelaniaz:***
IESO Reyno de Navarra (Azagra), 2. A, B eta PROA.
***DBH 3 eta 4 eta Lanbide Heziketa euskaraz:***
IES Zizur BHI (Zizur Mayor / Zizur Nagusia), 4. L.
***DBH 3 eta 4 eta Lanbide Heziketa gaztelaniaz:***
CIP Tafalla (Tafalla), 1. erdi-maila APSD.
***DBH 3 eta 4 eta Lanbide Heziketa gaztelaniaz:***
IES Huarte (Huarte), OLH Autoen mantenimendua, 1 B.

## SARI BANAKETA

Sari banaketa 2022ko apirilaren 11n egin zen Iruñeko Baluarten. Ekitaldian Herritarrekiko Harremanetako kontseilaria den Ana Ollo eta Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen zuzendari nagusia den Martín Zabalza izan ziren. Gainera, bertan izan ziren talde eta ikasle saritu guztiak. Ikasleek beren lan sarituak irakurriz, abestuz eta interpretatuz hartu zuten parte, eta Harkaitz Arbi-

Primaria y 37 de Educación Secundaria y Formación Profesional. De estos 91 trabajos, 29 han sido en euskera y 62 en castellano.

El tema propuesto "Diversidad fuente de riqueza" se ha especificado este año con el lema "Conóceme". El alumnado de primaria de los cursos 3º, 4º, 5º y 6º, ha tenido que elaborar una fotografía sobre el tema propuesto, y crear un texto de entre ochenta y cien palabras que explicara y contextualizara la fotografía. El alumnado de secundaria y formación profesional ha tenido que realizar un audiovisual de no más de 60 segundos sobre el tema propuesto. Este año, y como novedad, también ha podido participar el alumnado de 1º y 2º de Educación Primaria. El tema lo han tenido que reflejar mediante un dibujo. Un año más, los trabajos presentados han sido muy variados y de gran calidad. Como todos los años ha habido textos de todo tipo: descripciones, cuentos, poemas, letras de canciones, etc. En cuanto a los vídeos, los mensajes expuestos han sido muy claros y directos.

Los grupos que han resultado premiados son los siguientes:
***1º y 2º de Primaria en euskera:***
Premio al grupo 1º y 2º de Argia Ikastola (Fontellas).
***1º y 2º de Primaria en castellano:***
Premio al grupo de 1º del CP Atakondoa IP (Irurtzun).
***3º y 4º de Primaria en euskera:***
Premio al grupo 3º B de Paz de Ziganda Ikastola (Villava).
***3º y 4º de Primaria en castellano:***
Premio al grupo de 4º A del Colegio Santa Teresa de Jesús (Pamplona / Iruña).
***5º y 6º de Primaria en euskera:***
Premio al grupo de 5º de la Ikastola Erentzun (Viana).
***5º y 6º de Primaria en castellano:***
Premio al grupo 5º C del CP Juan Bautista Irurzun IP (Peralta).
***1º y 2º de la ESO en euskera:***
Premio al grupo 2º E del IESO Berriozar DBHI (Berriozar).
***1º y 2º de la ESO en castellano:***
Premio al grupo 2º A, B y PROA del IESO Reyno de Navarra (Azagra).
***3º y 4º de la ESO en euskera:***
Premio al grupo 4º L del IES Zizur BHI (Zizur Mayor / Zizur Nagusia).

zuren proposamen ludikoaz eta Xabier Crehueten musika saioaz gozatzeko aukera izan zuten.

Kontseilariak, gobernuaren izenean, eskerrak eman zizkien ikasle, irakasle arduradun eta ikastetxe parte hartzaileei ekimenean ilusioz eta konpromisoz parte hartzeagatik. “Aurkeztu diren lan guztien aipamena egitea gustatuko litzaidake, aurkeztu den lan bakoitzarena, izan ere, eta hamaika izan diren arren sarituak, denek egiten diote gaiari sekulako ekarpena. Zorionak!”

## AURKEZTUTAKO LANAK

Eskola lehiaketaren lehenengo hiru edizioetan egin bezalaxe, Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak liburuska honetan bildu ditu lehiaketaren bosgarren ediziora aurkeztutako lanak, egindako lan bikaina aitortzeko eta sormen lana balioan jartzeko. Liburuak Lehen Hezkuntzako ikasleek egindako lanak soilik biltzen ditu, izan ere, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikasleek sortutako bideoak Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiaren web orrian baitaude ikusgai: **https://pazyconvivencia.navarra.es/eu/libro-diversidad--fuente-de-riqueza-**. Nafarroako ikastetxe guztiek liburuaren ale bana jasoko dute; helburua osatzen

***3º y 4º de la ESO en castellano:***
Premio ex aequo al grupo 1º Grado Medio de APSD del CIP Tafalla (Tafalla).
***3º y 4º de la ESO en castellano:***
Premio ex aequo al grupo del 1º B de FPB de Mantenimiento de vehículos del IES Huarte (Huarte).

## ENTREGA DE PREMIOS

La entrega de premios se realizó el 11 de abril de 2022 en Baluarte de Pamplona. Al acto, en el que estuvieron presentes la Consejera de Relaciones Ciudadanas Ana Ollo y el Director General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos Martín Zabalza, asistieron todos los grupos premiados. Participó el alumnado leyendo, cantando e interpretando los trabajos premiados, y hubo ocasión de disfrutar de una actuación lúdica de Harkaitz Arbizu y de la música de Xabier Crehuet.

La consejera quiso agradecer en nombre del ejecutivo a los alumnos y alumnas, profesorado responsable y centros educativos participantes la ilusión y el compromiso con el que participan en la iniciativa. “Me gustaría destacar uno y cada uno de los trabajos presentados, ya que, aunque hayan sido once los seleccionados, todos son una aportación valiosa. ¡Enhorabuena!”

Sari-banaketa ekitaldia 2022-4-11.
Acto entrega de premios 11-4-2022.



ari garen bilduma hezkuntzarako baliabide bat gehiago izatea da, bere erabilerak errespetuaren, bizikidetzaren eta kulturartekotasunaren inguruko lanketak indartu ditzan. Testuak eta irudiak lanketarako tresna egokiak dira aztertu, hausnartu eta begirada berriak sortzen laguntzeko. Begirada horiek dira barne eta kanpo espazio hezitzaileak aberasten lagundu dezaketenak. Espazio horiek dira gizartearen oinarri.

Baina, ikastetxeetara bakarrik ez, Nafarroako liburutegi guztietara ere iritsiko da liburua, "Bakea eta Bizikidetza lantzen duten Liburutegiak" programaren ardatz izanik. Modu honetan material hau familiei irekia den espazio batera iritsiko da aniztasunaren balio positiboa eskoletara eta gizarte osora zabaltzeko esperantzarekin.

## ESKERTZA

Beste behin Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendaritza Nagusiak parte hartu duten ikasle guztiak zoriondu nahi ditu aurkeztutako lanen kalitateagatik eta proposaturiko gaiarekiko adierazitako ilusio eta inplikazioagatik. Gainera, sormen prozesuan ikasleen ondoan bide-lagun lanetan aritu diren irakasle guztiei eskerrak eman nahi dizkie ahaleginagatik, inplikazioagatik eta ongi egindako lanagatik.

**MARTÍN ZABALZA**

*Bakearen, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zuzendari Nagusia*

**JOSÉ MARÍA GONZÁLEZ**

*Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Zerbitzuko Zuzendaria*

**IRATI GOIKOETXEA**

*Bizikidetza Atalburua*

## LOS TRABAJOS PRESENTADOS

Tal y como se hizo en las cuatro primeras ediciones del concurso escolar, la Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos ha recopilado en este libro los trabajos presentados a la quinta edición, con la intención de reconocer el gran trabajo llevado a cabo por todos los grupos participantes y poner en valor esa creatividad. El libro recoge solo los trabajos realizados por los grupos de Educación Primaria; los vídeos creados por el alumnado de secundaria están expuestos en la página web de la Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos **https://pazyconvivencia.navarra.es/es/libro-diversidad-fuente-de-riqueza-**. Todos los centros educativos de Navarra tendrán un ejemplar del libro con el objetivo de convertir la colección en un recurso didáctico más para el trabajo que se desarrolla en las aulas en torno a los valores del respeto, la convivencia y la diversidad. Tanto los textos como las imágenes pueden ser objeto de análisis y reflexión que ayuden a seguir creando nuevas miradas que enriquezcan de forma interna y externa los espacios educativos como puntos fundamentales de la sociedad.

Pero más allá de los centros educativos, el libro estará disponible en todas las bibliotecas de Navarra, siendo como es el eje vertebral del programa "Bibliotecas por la paz y la convivencia". De esta forma, este material llegará también a un espacio abierto a las familias, con la esperanza de que la reflexión sobre el valor positivo de la diversidad trascienda al ámbito escolar y se extienda al conjunto de nuestra sociedad.

## AGRADECIMIENTO

La Dirección General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos felicita un año más al alumnado participante por el nivel de los trabajos presentados, y por la ilusión e implicación que ha mostrado con el tema propuesto. Y a su vez, agradece al profesorado que ha estado acompañando al alumnado en todo el proceso de creación por su esfuerzo, implicación y buen hacer.

**MARTÍN ZABALZA**

*Director General de Paz, Convivencia y Derechos Humanos*

**JOSÉ MARÍA GONZÁLEZ**

*Director del Servicio de Convivencia y Derechos Humanos*

**IRATI GOIKOETXEA**

*Jefa de Sección de Convivencia*



# 1



LEHEN HEZKUNTZA
EUSKARAZ

EDUCACIÓN PRIMARIA
EUSKERA

1·2

**IKASTETXEA I CENTRO**
Argia Ikastola (Fontellas).

**MAILA I CURSO**
LH 1 eta LH 2.

**IKASGAIA I ÁREA**
Arte-hezkuntza.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Gurutze Santos - Nerea Moreno.




**IKASTETXEA I CENTRO**
Erentzun Ikastola (Viana).

**MAILA I CURSO**
LH 2.

**IKASGAIA I ÁREA**
Artea eta Tutoretza.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Amaia Roncal Soto.



**IKASTETXEA I CENTRO**
Erentzun Ikastola (Viana).

**MAILA I CURSO**
LH 1.

**IKASGAIA I ÁREA**
Tutoretza.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Maite Santidrian.



**IKASTETXEA I CENTRO**
CPEIP Ricardo Campano HLHIP (Viana).

**MAILA I CURSO**
LH 2.

**IKASGAIA I ÁREA**
Euskara.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Elena Lirio.




**IKASTETXEA I CENTRO**
Lekaroz BHI (Lekaroz).

**MAILA I CURSO**
DBH 1.C.

**IKASGAIA I ÁREA**
Balio etikoak.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Gorka Tello Loigorri.



# 2



LEHEN HEZKUNTZA
GAZTELANIAZ

EDUCACIÓN PRIMARIA
CASTELLANO

1·2

**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio público Atakondoa (Irurtzun).

**CURSO I MAILA**
EP 1.

**ÁREA I IKASGAIA**
Valores Sociales y Cívicos y Ciencias Sociales.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Izaskun Gutiérrez Vázquez.




**CENTRO I IKASTETXEA**
CPEIP Doña Mayor de Navarra (Pamplona / Iruña).

**CURSO I MAILA**
EP 2.

**ÁREA I IKASGAIA**
Educación Artística.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Maite Mendióroz Lozano.



**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio Amor de Dios (Burlada).

**ÁREA I IKASGAIA**
Ciencias Sociales, Arts, Inglés, Lengua Castellana...

**CURSO I MAILA**
EP 2.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Verónica Coello Delgado.

La frase que hemos elegido ha sido: **Seamos EJEMPLO de GLOBALIDAD**.
Pensamos que ahora, más que nunca, debemos ser ejemplo de ello. La situación dada entre Rusia y Ucrania es delicada y muy triste. Nuestra aula es voz de globalidad y de PAZ.
Nuestra clase tiene representación de todos estos países y sus familias con mucho gusto han colaborado en la edición de una tabla de PAÍSES DE ORIGEN.

· España
· Perú
· Brasil
· Ecuador
· Honduras
· Rumanía
· Rusia
· Bolivia
· China
· Colombia
· Camerún
· Nigeria
· Bulgaria
· Senegal
· Marruecos

Es una maravilla,
una auténtica riqueza.
Ojalá este mural llegue
muy muy lejos.






**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio Público Catalina de Foix (Zizur Mayor / Zizur Nagusia).

**CURSO I MAILA**
EP 2.

**ÁREA I IKASGAIA**
Valores y Religión.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Jennifer Belletich, Claudia Macaya y Cristina Casla.



**CENTRO I IKASTETXEA**
C.P. Iturrama (Pamplona / Iruña).

**CURSO I MAILA**
EP 1.

**ÁREA I IKASGAIA**
Social Science.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Ángela García Sánchez.




**CENTRO I IKASTETXEA**
La Compasión Escolapios (Pamplona / Iruña).

**CURSO I MAILA**
EP 1.

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua Castellana.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Maite Iriarte.



**CENTRO I IKASTETXEA**
La Compasión Escolapios (Pamplona / Iruña).

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua Castellana.

**CURSO I MAILA**
EP 1.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Nancy Del Aguila.




**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio Santa Teresa de Jesús (Pamplona / Iruña).

**ÁREA I IKASGAIA**
Formación.

**CURSO I MAILA**
EP 1.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Yago Zarauza.



**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio Santa Teresa (Pamplona / Iruña).

**CURSO I MAILA**
EP 1.

**ÁREA I IKASGAIA**
Formación y Plástica.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Natalia Lumbreras Castellanos.



**CENTRO I IKASTETXEA**
La Compasión Escolapios (Pamplona / Iruña).

**CURSO I MAILA**
EP 1.

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua Castellana.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Raquel Marauri Eusa.



# 3



LEHEN HEZKUNTZA
EUSKARAZ

EDUCACIÓN PRIMARIA
EUSKERA

3·4

**IKASTETXEA I CENTRO**
Paz de Ziganda ikastola (Atarrabia).

**IKASGAIA I ÁREA**
Euskara.

**MAILA I CURSO**
LH 3.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Aitziber Aurrekoetxea Ezkurdia.

# LAGUN TALDEA

Bazen behin, herri bateko plazan elkartzen zen lagun talde bat. Arazo bat zuten; ez zuten hizkuntza berdinean hitz egiten eta ezin zuten elkar ulertu.
Orduan, lagun batek proposatu zuen:
- Hizkuntza bat adostu dezagun!
- Zer demontre esan duzu?-erantzun zion norberak bere hizkuntzan, tutik ere ulertu gabe.
Denbora luze-luzea eman zuten pentsakor, baina bat marrazten hasi zen eta beste guztiek adierazitakoa ulertu zuten. Hau ikusirik, lagun batek, marrazki baten bidez proposatu zuen:
- Irudiak eginez komunikatu gaitezke.
Hortik aurrera, horrela egin zuten. Poliki-poliki besteen hizkuntzak ikasi zituzten eta pozik bizi izan ziren.
Plis-plas, ipuin hau amaitu da.



## UN GRUPO DE AMIGOS Y AMIGAS

Una vez, un grupo de amigas y amigos se juntó en la plaza del pueblo. Tenían un problema, no hablaban en el mismo idioma y no se podían entender. Entonces alguien propuso lo siguiente:
- ¡Acordemos un idioma!
- ¿Qué diantre has dicho? –contestó cada quien en su idioma, sin entender nada de nada.
Se quedaron pensativos durante mucho tiempo, hasta que alguien comenzó a dibujar y todo el mundo entendió lo que quería expresar. Visto eso, alguien mediante un dibujo propuso lo siguiente:
- Podemos comunicarnos mediante imágenes.
A partir de ese momento, así lo hicieron. Poco a poco fueron aprendiendo los idiomas de los y las demás, y vivieron felices.
Y colorín colorado, este cuento se ha acabado.

**IKASTETXEA I CENTRO**
C.P. Buztintxuri I.P. (Iruña)

**MAILA I CURSO**
LH 4.

**IKASGAIA I ÁREA**
Euskara eta Baloreak.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Natalia Ordoqui Rudi.

# BEGI DESBERDINAK, BEGIRADA BERDINEAN

Gelako hemeretzi
begi desberdinak
baina guztiek beti
balore berdinak.

Begi kolore anitzak
denak dira ederrak
begirada bakoitzak
badira bakarrak.

Aurpegia da ispilu
ta deskribatzaile
pozik, triste, haserre
beldur adierazle.

Lagunekin jolastu
ta prest laguntzeko
mundu polit, baketsu
gu eraikitzeko.

Lurralde desberdinak
gure familietan
sentimendu bakarra
gure bihotzetan.

Entzun eta irri egin
bestea ezagutu
eta lagunei esan
asko errespetatu.

Altxorrik onena
gure aniztasuna
bizitzaren oinarri
da laguntasuna.

Denok gara lagunak
beldurrik ez izan
laguntza behar baduzu
azkar guri esan.

Berdin zaigu itxura
bai denen bihotza
izaera da ona
ospatu bizitza!



## OJOS DIFERENTES QUE MIREN IGUAL

En clase hay diecinueve
pares de ojos diferentes
y todos ellos se mueven
en valores convergentes.

La gama de color es variada
y si los miras son hermosos,
se puede ver en cada mirada
que son de uno y no de otros.

El rostro es espejo del alma
y describe nuestros estados:
alegres, tristes, furiosos,
hasta incluso asustados.

Juguemos con las amistades
y ayudemos sin tardar,
hagamos siempre las paces
y un mundo al que amar.

Nacimos cada uno en un lugar
y en familias singulares,
pero sienten y laten a la par
los corazones a raudales.

Escucha, habla, ríe,
descubre lo que te rodea,
y a quien estimas dile
que lo amas y respetas.

Nuestro mejor tesoro
es nuestra diversidad,
porque en la base de todo
siempre está la amistad.

Todos somos compañeros,
no tengas ningún problema
en pedirnos un pañuelo
cuanto tengas una pena.

No importa la apariencia,
sino que en el corazón
palpite la benevolencia.
¡Vive la vida!

**IKASTETXEA I CENTRO**
Erentzun Ikastola (Viana).

**MAILA I CURSO**
LH 4.

**IKASGAIA I ÁREA**
Tutoretza saioan.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Beatriz Dueñas Chasco.

# ZAPATEN ANIZTASUNA

Zapaten aniztasuna, pertsonen nortasunak, izaerak… Zapatila desberdinak, pertsonak bezala.

Zapatilak kendu eta trukatu, erantzi eta aldatu. Berdinak al dira besteenak? Zertan bereizten dira? Nola sentitzen zara besteen zapatiletan sartuta?

Zapatilak biribilean sartu… Zer dugu zirkuluan? Begiratu… Zer kontatzen digute zapatilek?

Besteen zapatiletan jarriz elkar hobeto ezagutzen gara, besteen lekuan jartzen gara. Ezberdinak gara baina zirkuluan gaude, zirkuluaren parte bat gara.

EZAGUTU NAZAZU!



## DIVERSIDAD DE ZAPATOS

La diversidad de zapatos, las personalidades, las formas de ser… Las zapatillas son diferentes, como las personas.

Descálzate e intercambia las zapatillas, quítatelas y cámbiatelas. ¿Son iguales las de los demás? ¿En qué se diferencian? ¿Cómo te sientes en las zapatillas de los demás?

Mete las zapatillas en el círculo… ¿Qué tenemos en el círculo? Observa… ¿Qué nos cuentan las zapatillas?

Poniéndonos las zapatillas de los demás, nos conocemos mejor, nos ponemos en el lugar del otro. Somos diferentes, pero estamos en el círculo, somos parte del círculo.

¡CONÓCEME!

**IKASTETXEA I CENTRO**
Erentzun Ikastola (Viana).

**MAILA I CURSO**
LH 3.

**IKASGAIA I ÁREA**
Euskara arloan.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Maite Otero Guizán.

# ESAN, ENTZUN, ELKAR ULERTU

Zuk nigan
eta nik zugan
arreta jarri
nire historian.

Badakit bi ama dituzula
zer inporta du horrek?
Besteak laguntzen dituzula
esan dit Aitorrek.

Beste zerbait esango dizut
jakin dezazun nolakoa naizen
dantzatzen eta abesten
arratsaldeak ditut pasatzen.

Kontaidazu orain
zu nor zaren,
zer gustatzen zaizun
eta nondik zatozen.

Orain dela 8 urte
kolonbian jaio nintzen
gurasoak eta anaia
nire bila joan ziren.

Arraroa zinela esaten zidaten
esan, entzun, ezagutu zaitut
elkar ulertu dugu
orain maite zaitut.

Zuk esan,
nik entzun
ba al dakizu elkarrekin
zenbat gauza ditugun?



## HABLAR, ESCUCHAR, ENTENDERSE

Tú en mí
y yo en ti atenta,
escucha ahora
que viene mi cuento.

Sé que tienes dos madres,
¿y eso importa acaso?
Sé que ayudas a los demás,
Aitor me contó el caso.

Te diré otra cosa
para que sepas cómo soy:
bailo y canto por las tardes
hasta que se va el sol.

Cuéntame ahora
tú quién eres,
qué te gusta
y de dónde vienes.

Hace 8 años
en Colombia nací,
mi madre, mi padre y mi hermano
fueron a por mí.

Me decían que eras rara,
tras hablarte, escucharte y conocerte,
nos hemos entendido,
y ahora no quiero perderte.

Tú habla
Que yo te escucho.
¿Sabes cuánto compartimos?
¡Es mucho!

**IKASTETXEA I CENTRO**
Orreagako Ama Ikastetxe Publikoa (Garralda).

**IKASGAIA I ÁREA**
Euskara, Balio Sozial eta Zibikoak eta Plastika.

**MAILA I CURSO**
LH 3-4.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Amaia Peña Estívariz.

# ETA ZU NOLAKOA ZARA?

Egun batean pertsona berri bat etorri zen eskolara, ez zuen inor ezagutzen eta lotsatuta zegoen. Noa-k (ez dakigu neska ala mutila zen) bazuen zerbait berezia egiten ziona. Bakarrik zegoen desberdina zelako. Hurrengo egunean ezagutu nahi zuen neskato bat hurbildu zitzaion; begiratu zion , hitz egin zion , entzun zion  eta galderak egin zizkion .

Zer egin nahi zuen pentsatu zuen: jolastea eta bere laguna izatea, desberdina izan arren lagunak izan zitezkeela ikusi zuelako.
Edonor izan daiteke bera.
Eta zu nolakoa zara?
Eta ni? Nolakoa naiz ni?



## ¿Y TÚ CÓMO ERES?

Un día vino una persona nueva a la escuela, no conocía a nadie y estaba tímida. Noa (no sabemos si era chica o chico) tenía algo que la hacía especial. Estaba sola porque era diferente. Al día siguiente se le acercó una niña que quería conocerla, la miró , le habló , la escuchó  y le hizo preguntas .

Pensó en lo que quería hacer: jugar y ser su amiga. Vio que a pesar de ser diferente podían ser amigas.
Cualquiera puede ser esa persona.
¿Y tú cómo eres?
¿Y yo? ¿Cómo soy yo?

# 4



LEHEN HEZKUNTZA
GAZTELANIAZ

EDUCACIÓN PRIMARIA
CASTELLANO

3·4

**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio Santa Teresa (Pamplona / Iruña).

**ÁREA I IKASGAIA**
Tutoría.

**CURSO I MAILA**
EP 4.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Elena Jimenez Carmona.

# ATRÉVETE

¿Alguna vez has sentido curiosidad por mirar a través de una cerradura antigua? ¿Qué habrá detrás de esa puerta que te ha llamado la atención? Nos hemos atrevido a mirar, la curiosidad nos ha hecho ver más allá de nosotros y de nosotras mismas. Y nos hemos dado cuenta de que somos cada uno, cada una de nosotras como una huella dactilar, que todas son diferentes y que todas las personas somos únicas. Eres diferente, mira más allá y descubre a otras personas que como tú son diferentes, seguro que os dejaréis huella.

## AUSAR ZAITEZ

Noizbait sentitu al duzu jakin-minik sarraila zahar batetik begiratzeko? Zer ote dago atentzioa eman dizun ate horren atzean? Begiratzera ausartu gara, jakin-minak gugandik haratago ikusarazi digu. Eta konturatu gara nor bera dela, gutako bakoitza hatz-marka bat bezalakoa dela, guztiak desberdinak, pertsona guztiak bakarrak garela. Desberdina zara, haratago begiratu eta zu aurkitu zure gisan bestelakoak direnak. Ziur elkarri arrastoa utziko diozuela.



**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio FEC Vedruna (Pamplona / Iruña).

**CURSO I MAILA**
EP 4.

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua y Tutoría.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Santi Arroyo.

# DIVERSIDAD POSITIVA

Piel clara,
piel oscura,
somos personas
de la misma altura.

Unos en inglés,
otros en francés.
Todos nos entendemos
y eso está muy bien.

Algunos bailan salsa,
otros bailan reguetón.
Aprendemos sus canciones
disfrutando un montón.

Muchas diferencias
mucha igualdad
todos nos respetamos
y esa es la verdad.



## ANIZTASUN POSITIBOA

Azal argikoak,
azal ilunekoak,
pertsonak gara
neurri berekoak.

Batzuek ingelesez,
besteek frantsesez.
Elkar ulertzen dugu
eta hori oso ondo dago.

Batzuek salsa dantzatzen dute,
beste batzuek regeton.
Beren abestiak ikasten ditugu
eta denoi egiten digu on.

Ezberdintasun asko
berdintasuna ugari
elkar errespetatzen dugu,
ez al da nabari!

**CENTRO I IKASTETXEA**
Colegio FEC Vedruna (Pamplona / Iruña).

**CURSO I MAILA**
EP 4.

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua y Tutoría.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Laura Ciaurriz.

## LA DIVERSIDAD

La creatividad y la variedad
definen la diversidad.
Si aceptamos la diversidad,
conseguiremos la igualdad.

Amor, cariño y alegría,
con esas palabras, hay buena armonía.
Felicidad y empatía,
eso es una buena compañía.

Cada uno tiene una cualidad,
que bien, se puede aprovechar.
Todos estamos llenos de capacidad
que tenemos que conseguir juntar.

Si tú tienes un gran corazón
crearás una buena unión.
Da a los demás apoyo y colaboración
así llenarás tu vida de emoción.

La diversidad es fuente de riqueza,
que debe eliminar la pobreza.
Respetar en los otros su naturaleza
nos dará gran fortaleza.




## ANIZTASUNA

Sormena eta  ugaritasuna
hori da aniztasuna.
Lortzen badugu aniztasuna,
izango dugu berdintasuna.

Maitasuna, txera eta poza,
lortutako orekaz egin dezagun goza.
Zoriona eta enpatia,
badugu adiskidetasunerako astia.

Bakoitzak badu bere ezaugarria,
ongi probestu daitekeena.
Denok dugu gaitasuna
elkarrengana lotu dezakeguna.

Zuk baduzu bihotz handia
lortuko duzu batasun askea.
Eman besteei babesa eta laguntasuna
hala izango da zure bizitza emozioz betea.

Aniztasuna aberastasuna da,
pobrezia ezabatu behar du.
Badugu besteen izatea errespetatzeko beharra,
horrela izango dugu indarra.

**CENTRO I IKASTETXEA**
CP Gloria Larrainzar IP (Zubiri).

**CURSO I MAILA**
EP 4.

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua Castellana.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Elena Uriz Arangoa.

# CONÓCEME

Aunque tenga apariencia de aburrid@, soy divertid@.
Conóceme.
Aunque tenga pinta de friki, soy interesante.
Conóceme.
Aunque parezca vag@, me esfuerzo en lo que me motiva.
Conóceme.
Aunque tenga pinta de borde, puedo ser agradable.
Conóceme.
Aunque parezca picón, soy un “tontorrón”.
Conóceme.
Aunque parezca tacañ@, soy generos@.
Conóceme.
Aunque en principio sea tímid@, soy valiente.
Conóceme.
Aunque cometa errores tengo muchas cualidades.
Conóceme
Aunque yo no soy perfect@ tengo sentimientos.
Conóceme
Aunque tenga pinta de rar@ puedo ser un buen amig@.
Conóceme.
No me apartes, necesitas conocerme, dame y date tiempo.
Además, siempre puedo mejorar.




## EZAGUTU NAZAZU

Aspergarri tankera hartzen badidazu ere, dibertigarria naiz.
Ezagutu nazazu.
Friki itxura badut ere, interesgarria naiz.
Ezagutu nazazu.
Alferra badirudit ere, motibatzen nauen horretan saiatzen naiz.
Ezagutu nazazu.
Lehor itxura badut ere, atsegina izan naiteke.
Ezagutu nazazu.
Erretxina ematen badut ere, gozo hartu zalea naiz.
Ezagutu nazazu.
Zekena ematen badut ere, eskuzabala naiz.
Ezagutu nazazu.
Hasiera batean lotsatia izan arren, ausarta naiz.
Ezagutu nazazu.
Akatsak egiten baditut ere, baditut bertuteak.
Ezagutu nazazu.
Perfektua ez banaiz ere, sentimenduak ditut.
Ezagutu nazazu.
Arraro itxura badut ere, lagun ona izan naiteke.
Ezagutu nazazu.
Ez nazazu baztertu, ezagutu behar nauzu, emadazu denbora, emaiozu zure buruari denbora.
Gainera, beti hobetu dezaket neure burua.

**CENTRO I IKASTETXEA**
Amor de Dios (Burlada).

**CURSO I MAILA**
EP 3.

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua y Tutoría.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
Irene Marrodán.

# "NO TENGAS MIEDO, CONÓCEME"

No tengas miedo, conóceme...
Ven conmigo.
No tengas miedo, conóceme...
Que soy tu amigo.
No tengas miedo, conóceme...
Da igual de dónde seas.
No tengas miedo, conóceme...
Te aceptaré tal como seas.
No tengas miedo, conóceme...
Ven y te ayudaremos.
No tengas miedo, conóceme...
¡SIEMPRE TE AMAREMOS!

## "EZ IZAN BELDURRIK, EZAGUTU NAZAZU"

Ez izan beldurrik, ezagutu nazazu...
Zatoz nirekin.
Ez izan beldurrik, ezagutu nazazu...
Laguna nauzu eta.
Ez izan beldurrik, ezagutu nazazu...
Berdin dio nondarra zaren.
Ez izan beldurrik, ezagutu nazazu...
Zaren gisako onartuko zaitut.
Ez izan beldurrik, ezagutu nazazu...
Zatoz eta lagunduko dizugu.
Ez izan beldurrik, ezagutu nazazu...
BETI MAITEKO ZAITUGU!



**CENTRO I IKASTETXEA**
CP Ricardo Campano (Viana).

**CURSO I MAILA**
EP 4.

**ÁREA I IKASGAIA**
Lengua Castellana y Literatura.

**RESPONSABLE I IRAKASLE ARDURADUNA**
María Fanlo Roa.

# CONOCIÉNDONOS GANAMOS TODAS LAS PERSONAS

Conocernos es difícil, pero hay que hacerlo porque es algo bueno y necesario. Eso sí, tienes que dejarte conocer de verdad. Aunque no lo creas, de la forma más inesperada puedes conocer a grandes amigos y amigas. Nunca debemos hacer daño a otras personas ni quedarnos quietos cuando vemos que alguien tiene un problema porque toda persona es diferente y eso es divertido.

Además, también es importante conocernos a nosotros mismos para saber la fuerza que tenemos y de lo que somos capaces. Así marcaremos límites y seremos amigas y amigos buenos y justos.









## ELKAR EZAGUTUZ DENOK IRABAZLE

Zaila da elkar ezagutzea, baina egin beharrekoa da, gauza ona eta beharrezkoa delako. Hori bai, utzi behar diezu besteei ezagutu zaitzaten. Sinesten ez baduzu ere, ezustekorik handienean ezagutu ditzakezu lagun handiak. Inoiz ez diegu kalterik egin behar beste pertsona batzuei, eta ez gara geldirik geratu behar norbaitek arazo bat duela ikusten dugunean, pertsona guztiak desberdinak direlako eta hori dibertigarria delako.

Gainera, garrantzitsua da geure burua ezagutzea, zer indar dugun eta zer egiteko gai garen jakiteko. Horrela mugak markatuko ditugu eta lagun onak eta bidezkoak izanen gara.

# 5



LEHEN HEZKUNTZA
EUSKARAZ

EDUCACIÓN PRIMARIA
EUSKERA

5·6

**IKASTETXEA I CENTRO**
Erentzun Ikastola (Viana).

**MAILA I CURSO**
LH 5.

**IKASGAIA I ÁREA**
Tutoretza eta Disziplinartekoa.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Iraultza Elizondo Echeverría.

# ZUK NIRE BEGIEKIN, NIK ZURE BEGIEKIN

Zuk nire begiekin
nik zure begiekin

Har itzazu nire betaurrekoak,
eta utzi niri zureak
trukatu ditzagun gure begiak
ulertu ditzagun gure munduak.
Zuk nireak, nik zureak,
zuk nire mundua, nik zure mundua.
Ikusi, begiratu, aztertu, sentitu, ulertu
zuk nire betaurrekoekin, nik zure betaurrekoekin.
Eta ikusten ez badut, gida nazazu
zuk ikusten ez baduzu nik gidatuko zaitut eta.
Beldurrik gabe baina kontu handiz
jantzi nire begiak eta nik zureak
sentitu, bizi
zuk nire begietatik, nik zure begietatik.
Nik zure bihotzarekin, zuk nire bihotzarekin.
Bueltatu begiak,
zuk niri, nik zuri.
Nik nire begiak, zuk zure begiak.
Zer ikusten duzu orain?
Nik zu inoiz baino hobeto ikusten zaitut,
inoiz baino hobeto ulertzen zaitut,
inoiz baino hobeto ezagutzen zaitut.



## TÚ CON MIS OJOS - YO CON TUS OJOS

Coge mis gafas
y déjame las tuyas,
intercambiemos nuestros ojos,
entendamos nuestros mundos.
Tú las mías, yo las tuyas,
tú mi mundo, yo el tuyo.
Veamos, miremos, analicemos, sintamos, entendamos,
tú con mis gafas, yo con las tuyas.
Y si no puedo ver, guíame,
si tú no puedes ver, yo te guiaré.
Sin miedo, pero con cuidado,
ponte mis ojos, yo me pondré los tuyos.
Sintamos, vivamos,
tú desde mis ojos, yo desde los tuyos.
Yo con tu corazón, tú con el mío.
Devolvámonos los ojos,
tú a mí, yo a ti.
Yo mis ojos, tú los tuyos.
¿Qué ves ahora?
Yo te veo mejor que nunca,
te entiendo mejor que nunca,
te conozco mejor que nunca.

**IKASTETXEA I CENTRO**
Lizarra Ikastola (Lizarra).

**MAILA I CURSO**
LH 5.

**IKASGAIA I ÁREA**
Tutoretza eta Euskara.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Sabino Arribillaga Sagastibeltza
Iosune Pérez Larrainzar

# ELKAR EZAGUTUZ, ELKAR ERRESPETATU

Elkar errespetatzeko, lehenengo elkar ezagutu beharko dugu. Maleta honetan gutako bakoitzak identifikatzen gaituen zerbait sartu dugu. Ireki dezagun maleta eta elkar ezagutu dezagun.

Elkar ezagutzea
guztion ardura
kanpotik ikustea
daukagun ohitura
ezagutu nazazu
ahaztu itxura
begiratu behar da
pertsonen barrura.

Elkarri mintzatuak
elkarri entzunak
gustuak desberdinak
dituzten lagunak
nahiz berdinak ez izan
denok ditugunak
onartu behar ditugu
desberdintasunak.

Begiratzea soilik
ez da nahiko sarri
aurreiritziena
baita oso larrai
aski dira bi aho
eta lau belarri
asko ezagutzen da
entzunez elkarri.

Diferentzia oro
ezin da ekidin
gizartea benetan
anitza izan dedin
pertsonak izateko
egingo ahalegin
denok berdinak eta
bakoitza desberdin.



## SI NOS CONOCEMOS, NOS RESPETAREMOS

Para respetarnos, primero tenemos que conocernos. En esta maleta hemos incluido algo que nos identifica a cada uno de nosotros. Abramos la maleta y conozcámonos.

Conocerse bien
es primordial,
fijarse en la forma
es algo banal,
conóceme bien,
olvida lo formal,
mira en el interior
lo esencial.

Háblame mucho,
escucha lo que digo,
con gustos diferentes
y siempre mi amigo.
No somos iguales,
no te mires al ombligo,
acepta al diferente,
convive conmigo.

Si solo miras
solo ves lo aparente,
tener prejuicios
no es inteligente,
2 bocas y 4 oídos
es suficiente,
se aprende mucho
escuchando a la gente.

Somos diferentes,
es inevitable,
la sociedad plural
es alcanzable.
Seamos humanos
y amables,
cada uno diferente
y todos iguales.

**IKASTETXEA I CENTRO**
Erentzun Ikastola (Viana).

**MAILA I CURSO**
LH 5.

**IKASGAIA I ÁREA**
Balio Sozial eta Zibikoak arloan.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Fultxo Crespo Ortigosa.

# BELARRIAK ETA AHOAK... ELKAR EZAGUTZEKO

Ahoak behar ditugu, aho asko.
Pentsatzen duguna esateko, ulertzen ez duguna galdetzeko, nolakoak garen kontatzeko, gure penak komunikatzeko, gure ilusioak partekatzeko.
Ahoak behar ditugu.
Belarriak behar ditugu, belarri asko.
Besteek pentsatzen dutena entzuteko, ulertzen ez dutena jakiteko, nolakoak diren ezagutzeko, besteek, guk bezala, penak eta ilusioak dituztela kontuan hartzeko.

Belarriak behar ditugu.
Hainbat aho, adina belarri behar ditugu. Edo, hobe esanda, hainbat aho adina belarri bider bi.
Entzuten ikasi behar dugulako eta horregatik dugu aho bakarra eta bi belarri. Entzutea garrantzitsua delako.
Eta begiak. Begiak ere behar ditugu.
Elkarri gozo begiratzeko. Ukitu ezin gaitezkeen urte hauetan begiradarekin besarkatzeko.



## OREJAS Y BOCAS... PARA CONOCERSE

Necesitamos bocas, muchas bocas.
Para decir lo que pensamos, para preguntar lo que no entendemos, para contar cómo somos, para comunicar nuestras penas, para compartir nuestras ilusiones.
Necesitamos bocas.
Necesitamos orejas, muchas orejas.
Para escuchar lo que piensan los demás, para saber qué no entienden, para conocer cómo son, para tener en cuenta que los demás, como nosotros, tienen penas e ilusiones.

Necesitamos orejas.
Necesitamos tantas orejas como bocas. O, mejor dicho, tantas orejas como bocas por dos. Porque tenemos que aprender a escuchar y por eso tenemos una sola boca y dos orejas. Porque escuchar es importante.
Y ojos. Necesitamos también ojos.
Para mirarnos con ternura. Para abrazarnos con la mirada cuando no nos podamos tocar.

**IKASTETXEA I CENTRO**
Tantirumairu Ikastola (Lesaka).

**IKASGAIA I ÁREA**
Arte Hezkuntza.

**MAILA I CURSO**
LH 5.

**IRAKASLE ARDURADUNA I RESPONSABLE**
Irati Maritxalar Iraola.

## TXURI BELTZAK KOLOREZTATUZ, ELKAR EZAGUTUZ

